



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 23a

54 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> I. Sarrera (3. or.). II. Helburua (5. or.). III. Norainokoa (5. or.). IV. Iritzia (6. or.). <ul style="list-style-type: none"> IV.1. Aurrekontuaren likidazioa (6. or.). IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (6. or.). IV.3. Legezketasuna (6. or.). IV.4. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (6. or.). IV.5. Erakunde autonomoak, enpresak eta fundazioak (6. or.). IV.6. Egoera ekonomiko-finantzarioa 2000ko abenduaren 31n (6. or.). V. 2000ko Finantza-egoerako orriak (7. or.). <ul style="list-style-type: none"> V.1. Iruñeko Udala (8. or.). V.2. Erakunde autonomoak (12. or.). VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendio orokorrak (13. or.). <ul style="list-style-type: none"> VI.1. Antolamendu orokorra (13. or.). VI.2. Kontabilitatea eta aurrekontuak (13. or.). | <ul style="list-style-type: none"> VI.3. Kontu-hartzailletza eta barne kontrola (14. or.). VI.4. Langileak (14. or.). VI.5. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (16. or.). VI.6. Transferentzia arruntetako gastuak (18. or.). VI.7. Kapital transferentziak (18. or.). VI.8. Inbertsioak (18. or.). VI.9. Finantza-pasiboak (20. or.). VI.10. Tributu bidezko dirusarrerak (20. or.). VI.11. Dirusarrerak. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak (21. or.). VI.12. Ondare dirusarrerak eta herrilurretakoak (21. or.). VI.13. Inbertsio errealak besterentzea (21. or.). VI.14. Finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak eragindako dirusarrerak (21. or.). VI.15. Finantza-kontuak (22. or.). VI.16. Zordunak (22. or.). VI.17. Ibilgetua-inbentarioa (22. or.). VI.18. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak (22. or.). VI.19. Aitortutako obligazioetako hartzekodunak (23. or.). VI.20. Entitate publiko hartzekodunak (23. or.). VI.21. Hirigintza (23. or.). VI.22. Gorabeherak (24. or.). VI.23. Erakunde autonomoak, enpresak eta fundazioak (24. or.). <p>Gehigarria: finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n (28. or.).</p> |
|---|--|

I. eranskina. Iruñeko Udalaren organigrama (2000) (34. or.).

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (35. or.).

I. SARRERA

Iruña Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua da, eta, 2000ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera 184.145 biztanle ditu. Dena den, haren eragina Iruñerri osora hedatzen da; horrela, guztira, populazioa 275.000 biztanle ingurukoa da.

Udalak, bere jardura burutzeko, honako erakunde autonomo, enpresa eta fundazio hauek ditu –ikus hurrengo orrialdeko taula–:

a) Erakunde autonomoak (EA):

- Haur-eskolak
- Hirigintzako Gerentzia

b) Toki Enpresa Publikoak:

1. Euren sozietate-kapitalean udalak gehiengo parte-hartzea du:

- Comercios Minoristas de Pamplona, S.A. (Comiruña). Horretan, parte-hartzea ehuneko 100ekoa da.

- Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA). Horretan, parte-hartzea ehuneko 70ekoa da.

- Mercados Centrales de Abastecimiento de Pamplona, S.A. (Mercairuña). Horretan, parte-hartzea ehuneko 51koa da.


2. Euren sozietate-kapitalean udalak parte-hartze txikia duen toki enpresa publikoak:

- Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A. Horretan, parte-hartzea ehuneko 30koa da.

c) Fundazioak:

- Iruñeko Erruki Etxea.
- Gaiarre antzokia.

Azkenik, adierazi beharra dago sua itzaltzeko zerbitzu publikoa Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoak ematen duela, eta uraren ziklo osoaren zerbitzua, hiri-hondakin solidoen tratamendua eta hiri-garraioa Iruñerriko Mankomunitateak.



Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko zenbateko nagusiak –bateratu gabeak– laburbildurik agertzen dira jarraian:

	Betetako gastu-aurrek. (milioitan.)	Betetako dirusar-aurrek. (milioitan.)
Udala	21.871	21.590
Udal eskolak	649	678
Hirigintza Gerentzia	1.062	855

Gainerako entitateen –parte-hartze handiko enpresen eta fundazioen– zenbateko nagusiak, berriz, honakoak dira:

Entitatea	Gastuak (milioitan)	Dirusarrerak (milioitan)
Comiruña	103	101
Animsa	601	586
Mercairuña	128	163
Erruki Etxea	1.998	1.990
Gaiarre Antzokia	257	251

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta udalaren gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu. Gainerako udal administrazioari dagokionez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea eta horien ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena egitea.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzeko den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoek eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudiak eta Nafarroako toki entitatei aplikatzeko den gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailko 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Araubide hori aplikatzea nahitaezkoa da 2000ko urtarilaren 1etik aurrera.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Iruñeko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta exekuzioa.

b) 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, eskuarki onarturiko kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren eta haren menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioen legezkotasun printzipioarekiko egokitasuna.

d) Nafarroako Kontuen Ganbarak 2000ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

e) Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomikoa 2000ko abenduaren 31n.

Iritzi hori osatzearen, udalaren erakunde autonomoen, enpresen zein fundazioen analititik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren fiskalizazioa egin du, 2000ko ekitaldiari dagokiona.

Iruñeko Udalak Kontabilitate publikoari buruzko Plan Orokorra ezarria dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorreko aplikazio bat.

Udalak aurkeztutako Kontu Orokorrek ekitaldian egindako jarduerak biltzen ditu. Ondokoak biltzen ditu funtsean, iruzkin eta ondorio orokorrez gain: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko eranskinak, hainbat ikuspuntutatik aztertuta –ekonomikoa, funtzionala, programak–, egoera-balantzea, magnitude nagusiak –aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina– eta ekitaldi itxien egoera. Kontu Orokorrek orobat biltzen ditu EAei buruzko informazioa zein udalaren eta haren EAen arteko bateratze-egoera.

Udalaren gain eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kontzeptu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Erakundeak eta gainontzeko entitateak direla eta, azaldu beharra dago badela kanpo auditoretza bat, lanbidedun independienteek egina, ondokoei buruzkoa:

Haur eskolak, Hirigintza Gerentzia, Animsa, Mercairuña, Iruñeko Erruki Etxea eta Comiruña.

Entitate horiei dagokienez, gure lana eginiko auditoretzen azterketa egitera zuzendu da, ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena eduki-

tzeko. Ez da jasota ageri Gaiarre Fundazioari buruzko kanpo auditoretza egin denik.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta araei jarraituz eta egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenak sei atal ditu, eta bertan biltzen dira, funtsean, Iruñeko Udalaren eta haren menpeko erakundeen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak. Atal horiek osatzeko, gehigarri bat jarri dugu, 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzkoa, bai eta bi eranskin ere, orduko organigramari buruzkoa bata eta txostenean erabilitako ratioen definitzioari buruzkoa bestea.

Azterketa lana 2000ko ekaina, uztaila, abuztua eta iraila bitartean egin zuen auditoretzako lau teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Iruñeko Udalaren 2000ko ekitaldiko kontabilitateko egoera-orriak aztertu ditugu, udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean bilzen baitira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko ikuskapenetik abiatuz, honako iritzia honetara iritsi gara:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

2000ko aurrekontuaren likidazio egoerak nahiko ongi agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian udalak egindako eragiketen multzoa.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak ez dira zenbatetsi, eta azken fasean dago inbentarioa eta kontabilitate-balioak berdinkatzea.

Udalaren 2000ko abenduaren 31ko balantzeak modu egokian agertzen du udalaren egoera eko-

nomiko-ondarezkoa, aurreko lerroaldean adierazitakoak finantza-egoeretan izan lezakeen eragina alde batera utzita.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Iruñeko Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da.

IV.4. KONTUEN GANBARAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

2000ko ekitaldiko txostena 2000ko abenduan eman zen argitara eta, hortaz, udalak ez du astirik izan ganbararen aholkuak 2000ko ekitaldian betetzeko.

Halere, oro har, esan daiteke azken ekitaldian Iruñeko Udalarari bilakaera positiboa antzeman diogula aurrekontuen kontrol eta kudeaketari dagokionez; udalak, gutxinaka, praktikan jartzen ditu ganbera honek urteroko txostenetan egiten dituen gomendioak.

Bereziki dira aipagarriak aurrekontuen kudeaketan izan diren hobetzeak; Udaleko Kontu-hartzailetzaren parte-hartzea handiagoa da espedienteen tramitazio faseetan; eta aurrera egin da adierazle ez-finantzario eta kostu-sistemei buruzko azterketetan.

IV.5. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ENPRESAK ETA FUNDAZIOAK

Udalaren erakunde autonomoek, hots, Hirigintza Gerentziak eta haur eskolek, kanpo auditoretza aurkeztu dute, eta horretan aldeko iritzia azaltzen da, salbuespenak salbuespen. Hona salbuespenak: Gerentziaren kasuan, urbanizazio-gastu uste baino handiagoek sor ditzaketen gorabeherak, eta haur eskolen kasuan, berriz, eraberitzeak inbertsio gisa kontabilizatzea.

Kapitalaren zatirik handiena udalarena duten enpresek –Comiruña, Animsa eta Mercairuña– aldeko iritzia azaltzen duen auditoretza-txostena aurkeztu dute.

Fundazioak direla-eta, aldeko iritzia azaltzen duen auditoretza-txostena aurkeztu du Erruki Etxeak, baina Gaiarre Antzokiak ez du auditoretza-txostenik aurkeztu.

IV.6. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2000KO ABENDUAREN 31N

Ondokoa da Iruñeko Udalaren eta haren EAen 2000-12-31ko egoera: 7.550 milioiko diruzaintzako gerakin positibo nabarmena –horietatik 4.652

inbertsioak finantzatzeko xedemanak—, epe luzean ordaindu beharreko 6.851 milioiko zorra, % 2ko zorpetze-maila eta % 16ko aurrezki garbiko portzentajea.

Datu horiek erakusten dutenez, udalaren finantza-egoera ona da eta hobetu egin da 1999ko ekitaldikoarekin alderatuz gero. Zorpetze-mailak ehuneko bost puntu egin du behera, 2000ko finantza-zama 1999koa baino 864,8 txikiagoa izan baita (izan ere, ekitaldi horretan 1.009 milioiko amortizazio aurreratua egin zen); beraz, aurrezte garbiaren ehuneko lau puntu hobetu da.

2000ko ekitaldian, bete egin da Bideragarritasun finantzarioari buruzko Plana; horrela, finantza-zama eta funtzionamendu gastuak dirusarrera arrunten bidez finantzatu dira, eta inbertsioak finantzatzeko 3.158 milioiko gerakina dago.

Ekitaldi bateko kapital gastuak hurrengo ekitaldiari egozteak dakar finantza baliabideak mantentzea gastua aurreikusi bai baina egiten ez den epean (2000ko 2.444 milioiko kredituak egotzi zaizkio 2001eko aurrekontuari).

Azkenik, amaiera eman behar zaio Hirigintza Gerentziak kudeatzen dituen hirigintza-poligonoen behin betiko likidazioa ez egiteak finantza arloan sortu duen zalantza egoerari. Likidazioak eragin ekonomiko zehaztugabeko gorabeherak eragin litzake udal fondoetan.

Laburbilduz, esan dezakegu ondorio nagusi gisa, ikuspuntu administratibotik begiratuta udalak modu egokian kudeatzen duela aurrekontua, eta 2000ko ekitaldiaren amaieran finantza egoera ona duela.

Aurrekontuen kontrola eta kudeaketa hobetzen jarraitzeko, Iruñeko Udalak, gure ustez, hurrengoak egin behar ditu:

- *Udaleko kudeatzaile lanpostua sortzeko aukera aztertu; alorren funtzionamendua zuzen-*

du, arautu eta koordinatuko lituzke. Horrela, udal kudeaketaren benetako ahalmena handitu egingen litzateke.

- *Aurrekontu-eredua aldatzeko prozesuarekin aurrera jarraitu, jarduera adierazleak eta helburuak sartuz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila neurtu eta aztertze prozedurak ezarriz.*

- *Kontabilitate-kudeaketaren eredua 1999tik aitzina indarra duen foru legediari egokitzeko prozesuaren barruan, eredu hori gaurkotu eta hobetu, kudeaketarako tresna erabilgarri bat lortzearen, batez ere honako arloetan: inbertsioen jarraipena, bateratzea, zerga-eskakizunak eta kontsultak.*

- *Estandarizatu eta normalizatu bai kontratazio espedienteetako zenbait agiri —esaterako klausula administratiboen pleguak eta txosten juridikoak—, bai aholkularitza juridikokoak. Jarduketa horiek, gainera, administrazio-tramitazioa azkartzea ekarriko lukete.*

- *Kontu-hartzailatza departamentua indartu; osatu gabeko alorrei —langileak eta dirusarrerak, adibidez— kontu-hartzailatza lana zehaztu egin behar die.*

- *Finantza-egoerari dagokionez, aurrekontuaren aldetik, Bideragarritasun finantziarioari buruzko Planak ezarritako bidean zorrotz jokatu beharri eutsi.*

- *Foru Komunitatearen esparruaren baitan, Udal Montepioari behin betiko irtenbidea bilatu.*

Ildo horretakoak dira txosten honetan jasotako gomendioak, eta gaur egun udala horietako asko ezartzen ari da.

V. 2000KO FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

Atal hau finantza-egoerako orri hauek osatzen dute:

V.1. IRUÑEKO UDALA

V.1.1. Aurrekontuaren betetze-maila. 2000ko ekitaldia

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikusp.	Behin-betiko aurreikusp.	Aitortuta	Aitor-tzeke	Betetze maila %
Zuzeneko zergak	5.145,3	5145,3	5.743,9	-598,6	112
Zeharkako zergak	671,0	671,0	789,8	-118,8	118
Tasak eta bestelako dirusarrerak	2.440,9	2.444,5	3.302,3	-857,8	135
Transferentzia arruntak	9.583,5	9.643,5	9.596,1	47,4	99,5
Ondare dirusarrerak	225,5	225,5	474,5	-249	210
Inbertsio errealak saltzea	1.929,4	1.929,4	743,1	1.186,3	39
Kapital transferentziak	47,9	843,5	558,6	284,9	66
Finantza-aktiboak	220,9	3.239,4	196,4	24 ⁽¹⁾	89 ⁽¹⁾
Finantza-pasiboak	3.406,6	3.269,7	185,1	3.084,6	6
Dirusarrerak, guztira	23.671	27.412	21.590	2.803	88,51⁽²⁾

(1) Diruzaintzako gerakinak (horren aurreikuspenak 8. kapituluaren ematen baitira) ez du eskubide aitorturik sortzen erabili izan den ekitaldian. Hortaz, kendu egin dira aitortzeke dagoenetik 3.018,6 milioi (1.249,4 milioi gerakinen gehikuntza finantzazteko, 1769,2 milioi kredituak aldeztetik kitatzeko eta 1.467,8 milioi inbertsio berriak finantzazteko). Horien bidez 1999an inbertsioak finantzatzeko aurreikusita zegoen mailegua ordeztu zen neurri batean.. Betetze-portzentajea kapituluaren gainontzekoetarako kalkulatu da.

(2) Guztizko portzentajearen kalkuluan ez dira sartzen erabilitako diruzaintzako gerakinari buruzko zenbatekoak.

(pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Aitortuta	Egi-teke	Betetze maila %
Langileen ordainsariak	8.659,4	8.771,4	8.813,7	-42	100,4
Ondasun arruntak eta zerb. erostea	6.463,2	6.571,8	6.022,3	549,4	91,6
Korrituak	452,2	339,8	262,5	77,3	77,2
Transferentzia arruntak	1.794,0	1.720,7	1.555,0	165,7	90,3
Inbertsio errealak	5.183,9	8.763,9	4.566,7	4.197,1	52,1
Kapital transferentziak	638,3	764,0	227,3	536,6	29,7
Finantza-aktiboen aldaketa	252,5	252,5	195,4	57,1	77,3
Finantza-pasiboen aldaketa	227,5	227,9	227,9	0	100,0
Gastuak, guztira	23.671	27.412	21.871	5.541,2	79,7

V.1.2. 2000-12-31ko egoera balantzea

AKTIBOA (pezetak, milioitan)

Izena	1999	2000
IBILGETU MATERIALA	35.383	38.371
Lurrak eta ondasun naturalak	10.326	10.473
Etxeak eta bestelako eraikinak	14.285	15.462
Makinak eta instalazioak	3.059	3.451
Garraio elementuak	312	366
Altzariak	47	55
Informazio-prozesuetarako ekipoak	273	320
Bestelako ibilgetu materiala	3.572	3.701
Inbentariatu gabeko ibilgetua	3.509	4.543
IBILGETU EZ-MATERIALA		
Ibilgetu ez-materiala		
INBERTSIOAK AZPIEGITURA ETA ERABILERA OROKORRERAKO ONDASUNETAN	1.143	1.192
Ondare historikoa	1.143	1.192
ALOR PUBLIKOKO INBERSIO FINANTZARIOAK	1.466	1.466
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	1.466	1.466
Eraturiko fidantzak ta gordailuak		
ZORDUNAK	2.540	3.265
Ohiko aurrekontuko zordunak	1.422	2.152
Aurreko ekitaldietako aurrekontuetako zordunak	1.087	1.083
Urbanizazio-kuoten zordunak	1	
Bestelako zordunak	30	29
KONTU FINANTZARIOAK	5.161	5.905
Kutxa	2	21
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	2	2
Bankuak eta kreditu-erakundeak	5.147	5.759
Justifikatu beharreko zordunak	10	10
Banaketa kontua	0	113
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	121	52
Aplikatzeko dauden kontusailak	121	52
AKTIBOA, GUZTIRA	45.814	50.251

PASIBOA (pezetak, milioitan)

Izena	1999	2000
ONDAREA ETA ERRESERBAK	27.597	30.900
Ondarea	20.122	19.943
Erabilera orokorreko ondarea		
Aurreko ekitaldietako emaitzak	7.475	10.957
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	3.171	3.171
Kapital dirulaguntzak	3.171	3.171
EPE ERTAIN ETA LUZEKO ZORRAK	7.078	6.851
Alor publikoko maileguak	2.203	2.180
Entitate pribatuen maileguak	4.875	4.671
EPE LABURREKO ZORRAK	3.665	4.708
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	2.034	3.057
Aurreko urteetako hartzekodunak	98	382
Bestelako hartzekodunak	10	25
Ente publikoak	392	525
Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	556	1
Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	575	718
EKITALDIKO EMAITZAK	3.495	3.675
Ekitaldiko emaitzak	3.495	3.675
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	808	946
Formalizatu gabe dauden dirusarrerak	28	-19
Urbanizazio-kuoten dirusarrerak	768	768
Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	12	197
PASIBOA, GUZTIRA	45.814	50.251

V.1.3. 2000-12-31ko diruzaintzako gerakinaren egoera

Zenbatekoak (pezetak, milioitan)

Kontzeptua	Saldoa
1. (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	2.709
Dirusarrerren aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua. Ken kobratzeko zailak diren saldoak	2.004
Dirusarrerren aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak. Ken kobratzeko zailak diren saldoak	663
Merkataritza eragiketetakoak	-
Bestelako ente publikoetako baliabidetakoak	-
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	42
2. (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	-4.598
Gastu aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	-3.057
Gastu aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	-382
Dirusarrerren aurrekontukoa	-21
Merkataritza eragiketetakoak	-
Bestelako ente publikoetako baliabidetakoak	-34
Aurrekontzu kanpoko bestelako eragiketetakoak	-493
Gordailuak eta fidantzak	-506
Formalizatzeke dauden dirusarrerak	
Urbanizazio kuotetako dirusarrerak	-105
3. (+) Diruzaintzako fondo likidoak 2000.12.31n	5.893
4. Finantziazio atxikiko gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	210
5. Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiena	1.051
6. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (1-2+3-4-5)	2.742
Diruzaintza gerakina, guztira (1-2+3) edo (4+5+6)	4.004

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

V.2.1. Hirigintza Gerentzia. Aurrekontuaren betetze-maila. 2000ko ekitaldia

(pezetak, milioitan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasirako aurrekontua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortuta	Aitortzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	21,6	44,7	0,5	0,5	1,1
4. Transferentzia arruntak	326,4	267,8	181,8	154,0	67,89
5. Ondare dirusarrerak	5,0	5,0	147,8	133,2	2.956,8
6. Inbertsioak saltzea	1,0	1,0			0
7. Kapital transferentziak	11.361	11.399,9	524,8	509,7	4,6
8. Finantza-aktiboak	0	1.716,4	0	0	0 ⁽¹⁾
Dirusarrerak, guztira	11.715	13.434,8	854,9	797,4	7,3

(1) Betetze mailaren ehunekoa kalkulatzeko ez da kontuan hartu behin betiko aurrekontuaren diruzaintza-gerakina, diruzaintza-gerakinak ez baitu aitorturiko eskubiderik sortzen.

(pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Egina	Egiteke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	159,4	159,4	156,5	153,3	98
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	193,1	234,5	51,6	49,1	22
3. Korrituak	0,5	0,5			0
4. Transferentzia arruntak	0	4,6	3,6	1,0	76
6. Inbertsio errealak	11.062	12.199,6	760,9	426,4	6
7. Kapital transferentziak	300,0	836,2	89,9	68,6	11
Gastuak, guztira	11.715	13.434,8	1.062,5	698,4	8

V.2.2. Haur Eskolak. Aurrekontuaren betetze-maila. 2000ko ekitaldia

(pezetak, milioitan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasirako aurrekontua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortuta	Aitortzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	142,1	142,1	165,1	164,7	116,2
4. Transferentzia arruntak	544,5	472,6	485,6	485,6	102,75
7. Kapital transferentziak	27	27	27	27	100
8. Finantza-aktiboak	0	71,9	0(1)		
Dirusarrerak, guztira	713,6	713,6	677,7	677,3	94,9

(1) Eskubiderik ez da aitortu diruzaintza-gerakinak ez duelako aitorturiko eskubiderik sortzen.

(pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Egina	Egiteke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	568,7	568,7	520,2	510,56	91,4
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	116,0	116,0	102,1	94,07	88
4. Transferentzia arruntak	1,9	1,9	0,7	0,7	36,8
6. Inbertsio errealak	27,0	27,0	26,2	10,5	97
Gastuak, guztira	713,6	713,6	649,2	615,8	90,98

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Ondoren aurkeztuko ditugu udalaren antolamendua eta barne kontrol sistema hobetu eta osatzeko egokitzat jo ditugun gomendioak, bai eta iruzkin eta ondorio orokorrak ere.

Zehaztu beharra dago, aldez aurretik, 1999ko abenduaren 31n bukatu zen ekitaldiko kontuei buruzko aurreko txostena 2000ko abenduan eman zela argitara, hots, txosten honen xede den ekitaldia ia-ia bukatuta zegoenean, eta, hortaz, udaleko arduradunek ez dute astirik izan gomendio guztiak betetzeko.

Esan behar da, halere, urteroko txostenetan adierazi bezala, bilakera positibo nabarmena izaten ari dela bai urteko aurrekontuen kudeaketari dagokionez, bai ganbera honek emandako gomendioen betetzeari dagokionez.

VI.1. ANTOLAMENDU OROKORRA

Oraindik ere, alorren arteko koordinazioa falta da jarduterakoan, eta horrek disfunczioak, atzerapenak eta udal kudeaketaren bateratasunik eza dakartza, nahiz eta aurrekontu-kudeaketa hobetu egin dela ikusi. Horrenbestez, hauxe gomendatzen dugu:

- *Koordinaziorako gerentzia-tresnak ezartzea, ondokoei buruzkoak:*

a) *Prozedura Eskuliburuetako prozedura, edukia eta azterketa bateratzeko jarraibideak.*

b) *Arloen jarduketak justifikatzeko txostenen edukia eta horien periodikotasuna.*

c) *Administrazio-espeditenteen kudeaketa, edukia zein dokumentazioa, eta horien jarraipena.*

d) *Udalaren zerbitzu juridikoen jarduketa, aholkularitza txostenak eta azterlanak egiteko irizpideetan bat etortzeko premia denaz bezainbatean. Hartara, zerbitzu juridiko zentralizatu bat sortzearen egokitasuna aztertu beharko litzateke.*

e) *Erakunde autonomoen eta enpresa publikoen funtzionamendua, horretarako, adibidez, kontratu-programak erabiliz, non beharrezkoa den finantziarioa eta erdietsi beharreko helburuak ezarriko baitira.*

- *Iruñeko Udalak aztertu beharko luke gerente bat izendatzeko aukera, udal zerbitzuak eta alorren antolatzeko eta zuzentzeko arduradun izateko.*

VI.2. KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

Prozesu horiek hobetzeko joera etengabea igartzen da azken ekitaldian, baina badira, halere, hobetu beharreko hainbat alderdi. Hona:

VI.2.1. Kontabilitatea

- *Kontabilitate-zerbitzuek zuzenean egindako idazpenak behar bezala dokumentatzea.*

- *Kontuetako saldo ez adierazgarriak erregulartzeari ekitea, batez ere "aplikatzeko dauden kontusailei" eta entitate publiko hartzekodunei buruzkoak.*

Kontabilitate-kudeaketako aplikazio informatiko berriak funtsezko hurrengo alderdietan egin behar du hobera:

- *Kudeaketako tresna informatiko nagusien integrazioa ahalbidetzea (langileak, dirusarrerak, inbentarioa...).*

- *Trasferentziak eta inbertsio proiektuak kontrolatzeko modulu berezi bat ezartzeko aukera aztertzea, gaur egungo mugak ikusita.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitate-informazioa sendotzeko bidea ematen duten prozedurak ezartzea.*

- *Zerga-eskakizunak aintzat hartzea, batez ere BEZaren kudeaketatik sortutakoak.*

- *"Kontsulta-tresnak" bultzatzea aplikazio informatikoaren baitan, kudeatzaileak berak eta udal kontu-hartzaileak kudeaketaren kontrola eta jarraipena egitea errazten baitute.*

- *Kostuen sistema erraztu bat diseinatzeko prozedurak erraztea. Sistema horrek gastu orokorrak zein administraziokoak jardueren artean banatzeko balioko luke, bai eta tasa eta prezio publikoetan ezarri beharreko tarifak kuantifikatzeko ere.*

Azkenik, Udaleko arduradunek jakinarazi duteenez, behar diren neurriak hartu dira programa informatikoak euroa indarrean sartzen denerako egokitzeko.

VI.2.2. Aurrekontua

Hauexek da, oro har, gure gomendioak:

- *Inbertsioak kontratatzeke espeditenteen kudeaketa arintzea; horrela, ekidin egingen da ondoko ekitaldiei kreditu-gerakineko zenbateko nabarmenak egotzi behar izatea.*

Programaz programako aurrekontuei buruzko azken txostenetan emandako gomendio eta ondo-

riok bere horretan dira. Ondokoak dira programaz programako aurrekontuen ezaugarriak:

- Helburuak eta adierazleak –batzutan egon ere ez daude– desegokiro definitu, kuantifikatu eta neurtzea.
- Horien betetzeari buruzko jarraipen zehatzik ez egitea.
- Programen kopuru neurrigabea.
- Homogeneotasun eza kudeaketa alorretako programen osaketan eta definizioan.

Azken buruan, aurrekontua programaka aurkezten da, neurri batean teknika honen filosofiari jarraikiz, zeren udal zerbitzuen kostuen zein baliabideen xedeari buruzko hobekuntza nabarmena baitakar. Halere, alderdi oso esanguratsuak falta dira, bereziki adierazle eta helburuei buruzkoak, eta horrek ezinezkoa egiten du baliabideak erabiltzerakoan lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila aztertzea.

• *Gure ustez, bultzatu egin behar da aurrekontua hobeto egiteko prozesua. Horretarako, oinarritzat hartu behar dira zenbait kudeaketa-helburu eta -adierazle, zeinek ahalbidetuko duten udal alorrek baliabide publikoak erabiltzerakoan duten ekonomia eta eraginkortsun maila aztertzea. Eta hori guztia udal kudeaketaren planifikazio ekonomikoan kokatu behar da.*

VI.3. KONTU-HARTZAILETZA ETA BARNE KONTROLA

Ganbera honek kontu-hartzailetzaren funtzionamenduaren hobekuntza aitortzen du; gutxinaka gutxinaka abian jartzen joan da azken txostenetako gomendioak.

Azken ekitaldian udalaren aurrekontuek asko egin badute ere gora, gastuaren aurreko kontu-hartzailetza lana asko bizkortu da, eta lan hori, orain, araudiak agindutako eginbehar murrizta baino haratago heltzen da.

Kontu-hartzailetzako lan hori, gainera, zabala goa da; izan ere, batzuetan, Udaleko alorrei laguntza eta aholkuritza ere ematen baitzaie, eta enpresa publiko eta erakunde autonometan egini-ko auditoretzen kontrola ere egiten baita.

2001eko ekitaldian, jada, Kontu-hartzailetza ari da egiten a posterioriko fiskalizazioa; alorretako espedienteen lagin adierazgarri bat hartu, eta emaitzak eta gomendioak erakusten dira aldizka ematen diren txostenetan.

Halere, erabat perfilatzeko dago oraindik zer eginkizun dituzten langile eta dirusarrera alorrek. Horrela, alde aurreko lanak egiten ari dira; nominei eta kudeaketa-informatikoko aplikazio berriari dagokienez, lanok gauzatu gabe daude, eta, dirusarreraren alorrean, ikusteko dago zein izan den horren definizio zehatza.

Hauxe gomendatzen dugu:

• *Kontu-hartzailetza indartzea eta lanerako behar dituen giza eta gauza baliabideez zuzkitzea; halaber, Kontu-hartzailetzaren lan eremua zabaltzea hori heldu ez den kudeaketa-alorretara: langileak eta dirusarrerak.*

• *Espedienteetan sartu beharreko agirien eduki eta kalitatea dela-eta, alor ezberdinekiko koordinazioari eustea.*

• *Barne auditoretza- eta fiskalizazio-prozesu osoa sartzea Udal Kontu-hartzailetzak egin beharreko jarduketak eta prozedurak bildu eta bateratuko dituen erregelamendu batean.*

VI.4. LANGILEAK

VI.4.1. Alderdi orokorrak

Langileen gastuak, 2000ko ekitaldian, 8.814 milioikoak izan dira –ekitaldiko gastuen ehuneko 40, aurreko ekitaldian baino ehuneko 9,8 gehiago–.

Hauxe da aurrekontuko artikuluen arabeko banaketa:

(pezetak, milioitan)

	Aitortutako obligazioak 2000 urtea	Obligazioen %, langileen gastu guztiak hartuta
Goi karguak	87,7	1
Behin-behineko langileak	204,2	2
Funtzionarioak	5.268,5	60
Lan kontratatudunak	360,0	4
Prestazioak eta gizarte gastuak	2.893,3	33
Guztira	8.813,7	100

Aitortutako obligazioek 42 milioitan gainditu dute behin betiko aurrekontua, informatikako programa berri bat jartzea dela medio, nominen kontabilizazioa atzeratu egin baita.

Plantilla organikoak –1999ko abenduaren 2an egindako osoko bilkuran onetsi zen– 1.503 lanpostu biltzen ditu, aurreko ekitaldian baino 16 gutxiago.

Ondokoa da 2000ko ekitaldiko plantilla organiko 1.503 lanpostuen mailaz mailako banaketa:

Maila	Kopurua	Ehunekoak
A	96	6
B	200	13
C	184	12
D	852	57
E	145	10
Atxiki gabe	26	2
Guztira	1.503	100

Ondoko taulan, 1999ko eta 2000ko abenduaren 31n Udalean alta emanda zeuden pertsonak konparatzen dira:

Harreman mota	2000	1999
Funtzionarioa –montepioa–	669	606
Funtzionarioa –Gizarte Segurantzaz–	464	441
Lan-kontratadun finkoa	16	14
Lan-kontratadun aldizkakoak	1	2
Alkatea eta zinegotziak	11	4
Aldi baterakoak	524	530
Guztira	1.685	1.597

2000ko abenduaren 31n, 1999an baino 88 pertsona gehiago dago alta emanda.

Handitze hori, funtzionario kopuruan islatzen baita, ez da benetakoa; informatika programa berriak, izan ere, 2000ko abenduaren 31n Udalean lanean ari diren zerrendan jartzen ditu zerbitzu berezietan dauden pertsonak; horiek ez dute udalarentzat lan egiten, eta egoera hori, aurreko urtean, ez zen horrela jasotzen.

Aldi baterako lan-kontratadunek langileen ehuneko 31 egiten dute 2000ko abenduaren 31n; aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ia ez da aldatu. Aldi baterako 542 lan-kontratadunetatik 103 gizarte-enplegu babestuari atxiki zaizkio, eta 83 eskola tailerrarekin zerikusia duten langileak dira; lanpostu horiek ez daude plantilla organikoan jasota.

Zinegotziak 4tik 11 izatera pasa dira; horren arrazoia hau izan da: 2000 urtean zinegotzi liberatuaren figura ezarri zen, eta horiek dedikazio eskusiboa dute. Talde politiko bakoitzak bat proposa dezake hiru zinegotziko edo zenbateko horren zatikiko.

Ez da lan eskaintza publikorik argitaratu 2000 urterako. 2000ko ekitaldiko plantilla organikoak 384 lanpostu huts jasotzen ditu; horietako batzuk bitarteko funtzionarioez eta aldi baterateko langileez daude beteta.

Udaltzaingoaren postu jakin batzuk zenbait urte daramate bitarteko funtzionarioez beteta, eta hori Nafarroako polizia kidegoei buruzko 39.3 artikularen aurkakoa da; gainera, zenbait lanpostuk dedikazio eskusiboaren osagarria jasotzen dute, eta osagarri hori ez dago 1/1987 Foru Legean jasota.

Agintariak babestu beharrak areagotu egin du Udaltzaingoaren lana. Horrela, aparteko orduak ehuneko 35 egin dute gora: 26.118 ordu egin dira guztira, eta gastua 44 milioi pezetakoa izan da.

- Udal montepioa

Hona 2000ko datuak:

Kontzeptua	(pezetak, milioitan)		
	Zenba- tekoa	Zenba- tekoa	Batez besteko Kopurua
Erretiroa	468	1.340,8	2,8
Alarguntza	265	478,4	1,8
Zurztasuna	116	151,1	1,3
Guztira	849	1.970,3	2,3

Zenbatzeke daude udal montepioak etorkizunean sortuko dituen konpromisoak; beraz, urtero eragindako pentsioak jaso dira.

VI.4.2. Langileen kudeaketa

Egin dugun lanaren laburpen gisa, zera esan dezakegu: langileen gastuak ondo kontabilizatuta daude oro har, eta bat datoz udalaren zerbitzuko langileek sortutako ordainsariekin.

Halere, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Une bakoitzean aplikatutako prozedurak modu integratu eta koherente batez biltzen duen eskuliburu bat prestatzea, alorreko prozedimenduen egungo deskripzioa formalizatzearen.*

- *Lanpostu guztiei ezarritako osagarriak jasotzea plantilla organikoan.*

- *Lan Eskaintza Publiko arrazoizkoa egitea kudeaketaz denaz bezainbatean, dauden baliabideak aintzat hartuz, edo bestela, horiek sendotzea, aurreikusitakoa betetzearen; halaber, ahal den neurrian, bitartekotasun egoerak eta aparteko orduak saihestea.*

- *Behin betikoz ezartzea langileak kudeatzeko aplikazio informatiko berria, eta, udal kontu-hartzailetzak fiskalizazio-lana egin dezan, dituen beharrianak biltzea aplikazio horretan; alde zuzenetik, langileen alorrean aplikatu beharreko prozedurak definitu beharko dira eta kontsulta eredu bat garatu kontabilitatea alorrerako.*

- *Aurrekontuaren betetzearen oinarriak errespetatzea gastu-lerroetan aldaketak egiteko, kontuan hartuz zein den ezarritako lotura juridikoaren maila.*

- *Ondareko erantzukizun zibileko aseguru poliza orokorrak udalaren beharrian guztiak har ditzan saiatzeari, poliza osagarriak egin behar ez izateko.*

- *Beken gastuak behar bezala erregistratzea, hots, transferentzia arrunt gisa.*

- *Langileen espedienteak osatzea: informazioa eguneratzea eta ukitzen dituzten ekintza administrazio guztiak biltzea.*

- *Udaltzaingoaren ordainsariak aztertzea eta lege ezarritakoaren arabera ordaintzea langile horiei.*

VI.5. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Aitortutako obligazioek 6.022 milioi egiten dute, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 8,9 gehiago.

Gastuen kapitulu honek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 27 egiten du; behin betiko aurrekontua hartuta, ehuneko 92 bete da.

Ondoren azaltzen da, aurreko urtearekiko alderaketa eginez, artikuluen eta kontzeptuen arabera kapitulu honetako betetzea zein izan den:

Kontzeptua	Egina 1999	Egina 2000	Aldaketa % 2000/1999
Lursail eta ondasun naturalen errentamendua	0	0	
Eraikinen errentamendua	33.534.123	42.748.684	
Makinen errentamendua	14.841.028	12.025.233	
Garraio materialen errentamendua	194.329	6.429.044	
Prozesu informatikoetako ekipoen errentamendua	0	0	
Gainontzeko ibilgetuen errentamendua	353.800	28.573.883	
Errentamenduak	48.923.280	89.776.844	84
Azpiegitura konpontzea	23.831.898	536.576	
Instalazio teknikoak mantentzea	88.736.038	99.393.297	
Eraikinak mantentzea	488.127.179	598.538.326	
Makinak mantendu eta konpontzea	11.524.024	18.490.471	
Garraio materiala mantendu eta konpontzea	37.254.235	26.415.016	
Altzariak mantentzea	17.400.917	16.506.256	
Prozesu informatikoetako ekipoak mantentzea	39.855.687	36.889.532	
Erabilea publikoko ondasunak mantentzea	92.092.300	244.157.791	
Gainontzeko ibilgetu materiala mantentzea	300.804.261	334.695.776	
Konponketa, mantentze eta kontserbazioa	1.099.626.539	1.375.623.041	25
Bulegoko materiala	51.255.930	58.123.164	
Hornidura (ura, argia, erregaia)	859.993.630	900.318.321	
Komunikazioak	117.038.493	118.342.650	
Garraioak	20.918.101	21.234.785	
Aseguru primak (ibilgailuak eta higiezinak)	41.697.447	44.799.651	
Tributuak	13.292.783	14.249.150	
Hainbat gastu (protokoloa, publizitatea)	650.291.973	667.730.673	
Kontratuak (garbiketa, laguntza teknikoa)	2.511.522.235	2.647.209.860	
Materiala, zuzkidurak eta beste	4.266.010.592	4.472.008.254	5
Dietak	7.938.806	22.306.593	
Lokomozioa	8.110.804	0	
Bestelako kalteordainak	9.197.297	6.061.752	
Kalteordainak zerbituz dela-eta	25.246.907	28.368.345	12
Edizio eta banaketa gastuak	88.283.255	56.455.112	
Argitalpen gastuak	88.283.255	56.455.112	-36
2. kapitulua, guztira	5.528.090.573	6.022.231.596	8,9
Gastuen ehunekoa, guztira	27	27,5	
Gastuak, guztira	20.484.075.231	21.871.120.451	6,8

Egin dugun azterketa egiteko ondoko lagina baliatu dugu:

Kontzeptua	2000n egina (pezetak, milioitan)
Komunen errentamendua	18,8
Eraikinen mantentzea. Eskola tailerrak	52,3
Eraikinen mantentzea. Ikastetxe publikoak	36,4
Eraikinen mantentzea. Aranzadi gunea	40,2
Eraikinen mantentzea. Kirol jarduerak	45,6
Erabilera publikoko ondasunen mantentzea. Kirol jarduerak	177,7
Erabilera publikoko ondasunen mantentzea. Kalea	64,7

Egindako azterketatik ondozioztatzen da ezen, oro har, bat datozela organo eskudunak onetsitako kontratuak eta egindako gastuak, ongi egin dela kontratuei buruzko kontrola, eta tramitazio administratiboa ere arauekin dat datorrela.

Halere, fidantza eta abalen kontrol eta erregistro egokirik ez dago, eta espedientean, zenbaitean, ez dira ageri prozedurak agindutako eskakizun formalak.

Beraz, aurreko ekitaldian eginiko gomendioetako batzuk indarrean diraute:

- *Erosketa Batzordea eratzea; batez ere, erosketa gaietan alorrei aholkuak eman eta horiek koordinatzeko ardura duen udal organoa izanen litzateke.*

- *Kontratazio espedienteetan arauk agindutako eskakizun formal guztiak jasotzea, hala nola hauek:*

- *Zerbitzuak kudetzako kontratuen ustiapenerako aurreproiektuak egin eta onestea.*

- *Argi eta garbi adieraztea zer araudi aplikatu behar zaion kontratu bakoitzari.*

- *Kontratazioaren beharrari buruzko txostena, eta adjudikazio moduaren justifikazioa.*

- *Ziurtagiri bat eranstea jasotako proposamenen kopuruarekin.*

- *Plegu estandarizatuak erabiltzea.*

- *Fidantza eta abalen kontrol eta erregistro egokia.*

VI.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO GASTUAK

Atal honetako gastua 1.555 milioi pezetakoa izan da, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 8 gutxiago.

Kapitulu honetako gastu handienak honakoetan egin dira (milioi pezetatan): haur eskoletan, 466; Hirigintza Gerentzian, 164; mankomunitateetan, 166; instituzioetan –kultura, gizarte zerbitzuak, kirola, gazteria–, 608.

Gastuen epigrafe honetan egindako azterketa-rekin bat, hona gure gomendioak:

Dirulaguntzen deialdien oinarrietan, ezartzea eskariak baloratzeko irizpideak, eta aurkeztetako-epaiek errespetatzea.

Emaniko dirulaguntza guztiak deialdi publiko baten arabera ematea.

Entitate, elkarte zein gainontzekoekin eginiko hitzarmenen kontrol zentralizatu egitea, ondokoak zehaztuz: zenbatekoa, diruz zer kontzeptu lagunduko den, araudia eta kontrol prozedurak.

VI.7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Atal honek, 2000ko ekitaldian, 227 milioiko betetzea izan du; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 59 egin du behera. Arrazoa izan da ez dela Hirigintza Gerentziarako transferentziarik egin berrostatzeetarako –aurreko urtean transferentziok 329 milioi egin zuten.

Gastu bolumenari begiratuta, ondokoak dira, milioitan, kontzepturik behinenak: familientzako transferentziak (etxebizitzak zaharberritzea), 107; Garraye Antzokia Fundazioa, 47; eta haur eskolak, 27.

VI.8. INBERTSIOAK

Aitortutako obligazioek 4.566,7 milioi pezeta egiten dute, gastuen aurrekontuaren ehuneko 21 alegia; hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 35,3 gehiago (1.190,2 milioi gehiago), orduan 3.376,5 milioi pezeta egin baitzuten. Halere, behin betiko aurrekontuaren betetze maila apala izan da, ehuneko 52,1ekoa hain zuzen; aurreko urteetakoekin alderatuta, ordea, pixka bat igo da, 1999ko betetze maila ehuneko 49 izan baitzen, eta 1998koa, berriz, ehuneko 42.

Esan beharra dago, edonola ere, 1999. urtean eginiko obren ziurtagiriek eragindako gastu bete-beharrak 2000ko ekitaldiari egotzi zitzaizkiola (766 milioi, gutxienez); halere, 1999an kontabilitatea ixteko arauk ezarritako irizpideak ezarritakoari jarraikiz, mugatu egin zen horiek ekitaldi horretan tramitatu, onetsi eta kontabilizatzea. 2000ko ekitaldia ixtean, aldiz, Aurrekontua Betetzeko Oinarrietan ezarritakoa aplikatu da, aukera ematen baitu 2000ko inbertsioak 2001eko urtarrilaren 15era arte tramitatzeko.

Inbertsio horietara ekarri ziren, Osoko Bilkurak 2000ko otsailaren 17an horrela onetsita, 1999ko ekitaldia jatorri zuten kredituak, 2.730 milioi hain zuzen.

Ganbera honek, inbertsio proiektuen kudeaketa hobetzeko, hauxe gomendatzen du:

- *Proiektu bakoitzeko arduradun bat izendatzea, tramitazioa –bai administratiboa bai betetze erreala– azkartu ahal izateko.*

- *Oroit-idazkiari ekitaldian tramitatu diren inbertsio espedientei buruzko informazioa gehitzea, ondokoei buruzkoa hain zuzen ere: erabilitako adjudikazio prozedurak, ekitaldian betearazitako kontratuak, lau urteko inbertsio plana edo programa zertan den.*

Alorretan informazio zehatzik ez dagoenez egindako inbertsio obrei buruz, eta emandako informazio orokorra ere eskasa denez, kapitulu honetako aurrekontuaren betetzeari buruzko azterketa sakona egin behar izan dugu, aztertu beharreko laginean egindako zer obra sartu erabakitzeke.

Informazio falta hori konpontzen ari da; horretarako, 2001eko ekitaldian eginiko kontratazio espedienteen jarraipen zentralizatua egiten ari da.

Aztertutako zenbatekoak 2.834 milioi pezeta egiten du, hau da, ekitaldiko zenbateko aitortuaren ehuneko 62. Hona zehaztasunak:

Aztertutako espedienteak	Adjudikazio prozedura	Zenbatekoa	Adjudikazioa, azpitik %	Egina 2000
Alde Zaharra eta Kale Nagusia berriro urb.	Lehiaketa/Zuzena	584.110.652	1,13	497.391.241
Alde Zaharra eta Kale Nagusia berriro urb.	Zuzena			103.502.720
Carlos III. etorbidea oinezkoentzat bihurtzea	Lehiaketa	599.979.260	12,29	572.778.169
Mendebaldeko orubea egokitzea	Lehiaketa	75.409.511	18,51	73.239.872
Magdalena-Arga zatia (Arga Ibaiaren Plan Integrala)	Lehiaketa	134.341.313	0,40	158.663.392
Iruñeko kutzaren eraikineko 3 solairu erostea	Zuzena	900.000.000		556.000.000
3 solairuak erosteak eragindako bestelako gastuak	Zuzena			38.099.806
Konpainia plazako aparkalekua	Lehiaketa	361.622.400	13,28	85.382.350
Konpainia plazako aparkalekua (zerbitzuak aldatzea)	Zuzena	32.131.531	0	21.538.261
Informazio prozesuko ekipoak (zenbait esp.)	Lehiaketa/Zuzena			81.911.265
Aplikazio informatikoak (gainontzeko esp.)	Lehiaketa/Zuzena			75.668.759
Aplikazio informatikoak (Animsa)	Programaren kontratua	28.185.083		28.185.083
Gayarre Antzokiaren lehengoratzearterokoak	Hitzarmena			12.883.227
Urbanizazio gastuak	Zuzena			65.149.488
Condestablearen Jauregia erostea (eta kalte-ordainak)	Zuzena	204.838.003	0	207.448.978
Berrostatzeetako etxebizitzak erostea (Vinsa)	Hitzarmena			257.013.430
Guztira				2.834.856.041

Hona egin dugun lanetik ateratako ondorioak:

- Azken ekitaldian, aurrekontuaren betetzeak adierazten du inbertsioak egiten diren erritmoa ez datorrela bat gastu-aurreikuspenekin, nahiz eta nolabaiteko hobetzea nabari.

- Oro har, bete egiten dira administrazio publikoetako kontratazioetan aplikatu beharreko publikitate eta lehiaren printzipioak.

Ganbera honek, aztertutako laginetatik ateratako ondorioak kontuan hartuta, hauek gomendatzen ditu:

• *Kontratazio espedienteen oinarrizko alderdi juridiko guztiei buruzko txosten juridikoak egitea.*

• *Kontratuei buruzko foru legearen eta aplikatzeakoa den gainontzeko legeriaren arabera klausula ekonomiko administratibo orokorrak presatzea.*

• *Kontratazio espedienteetan, hautatze prozedura aurkeztutako eskaintzei buruz Udal Erregistroak eman beharreko ziurtagiriak azaltzea.*

• *Lehiaketa prozesuan erabilitako hautatze irizpide bakoitzari esleitu zaion puntuazioaren banaketa egiteko irizpideak zehaztea.*

• *Obrak egiten ari direla, beharrezko aldaketen formalizazio eta tramitazioa (obra berriaren unitateak, aldaketak, prezio kontradiktorioak, etab.), ahal dela, exekuzioa eta ziurtagiriren aurretik egin behar dira.*

• *Zehaztea, Informatika Plan Operatiboa osatzen duten proiektuen betetzeari buruz Informatikako Udal Batzordearen aurrean egin beharreko justifikazioan, proiektuei dagokien zenbatekoa (gauzatu gabeko proiektuak, berriak edo handituak); horrela, nabarmenak izanen dira eta justifikatuta geldituko dira gertatutako desbideraketak, eta, behar izanez gero, tokatzen diren kenketak eginen dira.*

• *Abalak erregistratu, zaindu eta itzultzeko prozedura ezartzea, eta udal diruzaintzan zentralizazioa.*

• *Alorretan, inbertsio proiektuen alderdi administratibo eta teknikoak kudeatzeko arduradunak izendatzea; horiek proiektuen berri eman beharko lukete aldiro Alorreko Idazkaritza Teknikoaren bidez.*

VI.9.FINANTZA-PASIBOAK

Kapitulu honetan 228 milioi pezeta gastatu dira. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 80 egin du behera, eta ekitaldiko mailegu amortizazioa jasotzen du.

2000ko ekitaldiaren amaieran, balantzean, maileguetako zor biziak 6.851 milioi egiten du.

VI.10. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK

VI.10.1. Zergak

2000ko aurrekontu-kitapenaren arabera, zerga mota nagusiek ondoko xehetasunak azaltzen dituzte:

Zergak	(Pezetak, milioitan)	
	Zenbatekoa	Kobrantzaren %
Landalur kontribuzio	4	
Hirilur kontribuzioa	2.549	97
Ekonomi jarduerak	1.319	93
EIOZ	790	87
Ibilgailuak	910	94
Lurren balioaren igoera	659	75
Luxu gastuak	303	100

Tributu bidezko dirusarreratako 1 eta 2. kapituluak, guztira, udalaren dirusarreraren ehuneko 30 egiten dute; betetze maila, aldiz, ehuneko 112koa da, eta kobrantzaren ehuneko, gutxi gorabehera, ehuneko 90ekoa, kobrantza kudeaketa egokiaren adierazgarri.

Udalak derrigorrezko zerga guztiak kudeatzen ditu, eta borondatezkoen artean, bingoko sarien gaineko zerga da aplikatzen duen bakarra. Bete gabe dauden etxebizitzaren gaineko zerga ez da ordainarazten, nahiz eta ordenantza egon bada goen.

Aplikaturako tasei dagokienez, ondoko taulan, konparatzen dira udalarenak eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoak:

Tributua	Iruñeko Udala	TOFL
Hirilur kontribuzioa	0,29	0,1-0,5
Landalur kontribuzioa	0.55	0,1-0,8
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32-1,4	1-1,4
Lurren balioaren igoera	10,10	8-20
5 urte bitarte	3,7	2,7-3,8
“ 10 urte bitarte	3,5	2,5-3,7
“ 15 urte bitarte	3,4	2,2-3,6
“ 20 urte bitarte	3,2	2,2-3,6
EIOZ	4,3	2-5
Luxu gastuak-Bingoa	6	10

Zerga-alor horretan egindako azterketaren arabera, udal zergen kudeaketan erabilitako prozedurak egokiak dira oro har, eta aurrekontuan azaltzen diren dirusarrerek behar bezala erakusten dute zein den udalaren egoera.

VI.10.2. Tasak eta prezio publikoak

Dirusarreraren aurrekontuko 3. kapituluaren 3.302 milioiko eskubide aitortuak azaltzen dira; betetze-

maila ehuneko 135koa da, eta kobrantza portzentajea, aldiz, ehuneko 67koa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 21 egin du gora; izan ere, 2000ko ekitaldian, hor kontabilizatu da Ezkabako terreno batzuk desjabetzeko aurreikusi zen dirua –853 milioi–, eta desjabetze hori ez da gauzatu.

Ondoko taulan, 50 milioitik gorako eskubide aitortuak azaltzen dituzten kontzeptuak agertzen dira:

Tasa eta prezio publikoak	Zenbatekoa
Ibilgailuak eramatea	137
Kirol instalazioak	85
Hilerriaren zerbitzuak	82
Establezimenduen irekiera	97
Hirigintza lizentziak	164
ORA	625
Industria ibiltariak	53
Aprobetxamendu bereziak	279
Aparkalekuetako pasabideak	78
Isunak eta zehapenak	298
Aurrekontuetatik itzulia (Ezkabako kalte-ordainetarako dirua)	853

Kudeaketa-prozedura, oro har, egokia dela ikusten dugu; halere, haxe gomendatzen dugu:

- *Zerbitzu publikoak ematearen benetako kostua zehazteko prozesu eta azterketarekin jarraitzea.*

VI.11. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK

9.596 eta 559 milioi dituzte aitortuta, hurrenez hurren. Hona horiei buruzko xehetasunak, jatorriaren arabera emanak:

	Aitortutakoak Arruntak	Aitortutakoak Kapitalekoak
Estatuarenak	89	109
Nafarroako Gobernuarenak	9.394	212
Europako Batasunarenak	25	238
Bestelakoak	88	-
Guztira	9.596	559

Egindako azterketaren arabera, dirusarreraren aurrekontuan kontabilizatu eta aitortutako zenbatekoak arrazoizkoak dira.

Hala ere, hau da gure gomendioa:

Udal alorren eta kontabilitate departamentuaren arteko komunikazioa edo informazio trukea hobetzea, emaniko transferentzia guztiak egoki erregistratu daitezzen eta sortzen diren momentuan kontabiliza daitezzen.

VI.12. ONDARE DIRUSARRERAK ETA HERRILURRETAKOAK

Aitortutako eskubideek 474 milioi egiten dute, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 86 gehiago. Hona xehetasunak, milioi pezetatan:

	Aitortua (pezetak, milioitan)
Estatuaren tituluen bidezko dirusarrerak	0
Maileguen interesak (epe luzekoak)	0,8
Bankuetako kontu korronteen interesak	189,3
Ezarpenen interesak (epe laburrekoak)	55,3
Banaketarako kontuen interesak	2,0
Dibidenduak	14,2
Finken errentamendua	66,0
Emakidak eta kanonak	146,9
Guztira	474,5

Egindako azterketaren arabera, dirusarreraren aurrekontuan kontabilizatu eta aitortutako zenbatekoak arrazoizkoak dira, eta aplikatu beharreko legeria aplikatu da.

VI.13. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA

743 milioi pezetako eskubideak ditu aitortuta. Honela banatzen dira: 529 milioi, terrenoen salmenta dela eta; lokalak direla eta, 65; berrurbanizatzea dela eta, 149 milioi. Ur Mankomunitatearekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz.

VI.14. FINANTZA AKTIBO ETA PASIBOEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK

Aitortutako dirusarrerek 196,4 milioi eta 185,2 egiten dute.

Lehenengo kontzeptua da udal funtzionarioei ematen zaien osasun laguntzak eragindako gastuen itzulera.

Bigarren kontzeptua hau da: udala Vinsaren ordezkari jarri da 185,2 milioiko mailegu batean; poli-za 2001en formalizatu zen.

VI.15. FINANTZA KONTUAK

Epigrafe honetako saldoa 5.957 milio pezeta-koa da.

2000n, bankuetako funts erabilgarriak nahiko handiak dira: 5.759 milioi pezeta egiten dute.

Funts horiek Nafarroako Kutxan daude batez ere.

Horien 2000ko etekina 246 milioi pezetakoia izan da.

Diruzaintzako egoera on horri esker, arraoizko epetan ordaintzen ahal zaie hornitzaileei.

Ondare-masa horri buruz egindako azterketaren ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Hurrengo kontuok erregularizatzea:*

- *Aplikatzeko dauden kontusailtako ordainketa bikoiztuen kontua, 3 milioirekin.*

- *Aurreko urteetatik justifikatu beharreko libramenduen kontua, 9,8 milioirekin.*

- *Formalizatzeko dauden ordainketak, identifikatu gabeko kontzeptuak direlako eta aurrekontua ez delako aplikatzen; kontu honen saldoak 13 milioi egiten du.*

- *Aplikatzeko dauden aurrekontu-gastuak; saldoak 36 milioi egiten du.*

- *Sinadura mankomunatu erabiltzea bankuko funtsak erabili ahal izateko.*

- *Tarteka, bankuetako saldo-berdinkatzeak egitea kontu-laburpenekin; bereziki, ekitaldiaren amaieran.*

- *Diruzaintzako adospen orokorra –urteko kontuen zati gisa– lortu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak ezartzea, bertan bilduz ordainketa eta kobrantza guztiak, bai eta diruzaintzako hasiera zein bukaerako izakinak ere.*

VI.16. ZORDUNAK

2000ko abenduaren 31ko saldoa 3.265 milioi-koa da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 28 handiagoa.

Egin dugun azterketaren arabera, balantzean azaltzen diren saldoek behar bezala agertzen dituzte udalak kobratzeke dituen eskubideak.

Salbuespen gisa, aurreko ekitaldietan bezala, kobratzeke dauden isunak kutxako irizpideei jarraikiz kontabilizatzen dira kobratzen diren unean; horrela, 2000ko abenduaren 31n 444 milioi pezeta daude kobratzeke eta kontabilitatean islatu gabe.

VI.17. IBILGETUA-INBENTARIOA

Udalak ezarri du inbentarioa eta ibilgetuaren kontabilitate saldoa lotzeko prozedura. Horren bitartez islatzen dira inbertsioak eta udal ondasun higiezinak nahiz beste ondasun batzuek izaniko hobekuntzak; horren bitartez, baita ere, inbentariatu gabeko ondasunak identifikatzen dira, eta eskuratutako ondasun berriak erregistratzen.

Aipatu hobetzeak gorabehera, aurreko ekitaldietan aipatutako zenbait hutsunek bere horretan darrai.

- *Balantzearen barruan “Inbentariatu gabeko ibilgetua” kontua azaltzen da. Kontu hori 4.543 milioi-koa da, baina, izenak berak dioen legez, ez dira inbentarioan sartzen. Zenbateko hori, ordea, ondasun identifikatuen zerrenda bati dagokio.*

- *“Azpiegituretako eta erabilera orokorrerako ondasunetako inbertsioak” eta horren baliokide –pasiboan– “Erabilera orokorrerako ondarea” izenekoei buruzko ibilgetu-kontuak ez dira erabili.*

- *Ibilgetuak ez du ematen lagatu/atxikitako ondasunei buruzko informaziorik, eta ez da ondareari dagokion kontua erabiltzen, ezta hartzailea udala bera denean ere.*

- *Ez dira udal inbentarioan sartu udalaren menpekoak izaki nortasun juridiko berekia duten entitateen ondasunak eta eskubideak.*

- *Udalaren lur ondarea ez da inbentarioan zehaztuta azaltzen.*

- *Osoko Bilkurak 1993an hala erabakita, altzariak, fotokopiagailua eta faxa salbu, ez dira inbentarioan –hain gutxi balantzean– sartzen.*

Gure gomendioa da udal inbentarioa eta horren ibilgetua hobetzeko prozesuarekin jarraitzea, udal ondasunen kontrol eta kontabilitate-islategokia bermatzearen.

VI.18. EPE LABURREAN JASOTAKO FIDANTZA ETA GORDAILUAK

Balantzeko kontu honek –575,4 milioi pezeta-ko saldoa du– ondoko xehetasunak azaltzen ditu:

	Saldoa 00/12/31n
Epe laburreko fidantzak	597
Gordailuak	121
Guztira	718

Udalak fidantza saldoen berrikuspen lana egin du, baina erregularizatu gabe dago kontabilitate saldoa.

Gure gomendioa da fidantza eta gordailuen kontuak aztertzean agerian geratu diren doiketak eta birsailkapenak egitea.

VI.19. AITORTUTAKO OBLIGAZIOETAKO HARTZEKODUNAK

2000ko ekitaldia ixtean, aitorturiko betebeharren ondoriozko hartzekodunek 3.464 milioiko saldoa egiten dute, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 62 gehiago. Saldoa honela dago osatuta:

	Saldoa 00/12/31n (milioitan)
Aurrekontu korronteko hartzekodunak	3.057
Aurrekontu itxiko hartzekodunak	382
Dirusarrerak itzuli behar zaizkien hartzekodunak	25
Guztira	3.464

Epigrafe hau osatzen duten gastuak aztertuta, ondorioztatu dugu doitu egin behar direla aurrekontu itxiko hartzekodunen saldoa eta dirusarrerak itzuli behar zaizkien hartzekodunen saldoa; halere, egin beharreko doitzek ez lukete saldoa, guztira hartuta, desitxuratuko.

Gomendatzen dugu aztertzea eta doitzea aurrekontu itxiko hartzekodunen saldoa eta dirusarrerak itzuli behar zaizkien hartzekodunen saldoa, eta saldoak hartzekoduntzat hartzea, baldin eta ordaindu gabeko zorrak islatzen badituzte benetan.

VI.20. ENTITATE PUBLIKO HARTZEKODUNAK

2000ko abenduaren 31n entitate publikoen saldo hartzekodunak 525 milioi egiten du. Hona:

	Saldoa 00/12/31n (milioitan)
Nafarroako Gobernua. Osasun laguntza	34
Ogasun publikoa. BEZa dela eta zordun	-25
Ogasun publikoa. PFEZa dela eta hartzekodun	301
Gizarte Segurantza, hartzekodun	86
Ogasun publikoa. Jasanarazitako BEZa	129
Guztira	525

Entitate publikoei zordun zaien kontu multzo hori aztertuta, hurrengo ondorioak atera ditugu:

Udalean, BEZak sortzen dituen formazko obligazioen kudeaketa eta betetzea eskasa da. Eta hala:

- Egungo kontabilitate-sistemarekin ezin daiteke egin oinarrizko kudeaketa automatikorik, eta, horrenbestez, aldiro egin behar dira kalkuluak eta eskuzko eragiketak.

- “Ogasun Publikoa BEZa” ataleko kontabilitate saldoek ez dute 2000ko abenduaren 31ko egoera islatzen; aitorpenak berandu aurkezten dira; ez dira derrigorrezko erregistro liburuak egiten.

“Nafarroako Gobernua. Osasun laguntza” eta “Ogasun publikoa. PFEZa dela eta hartzekodun” kontuek 11 eta 23 milioi dituzte, hurrenez hurren; horiek aurreko ekitaldiak dituzte jatorri, eta erregulartzat egin behar dira ez baitituzte benetako zorrak islatzen.

Hauek dira gure gomendioak:

Gomendatzen dugu aztertzea eta doitzea entitate publiko hartzekodunen kontabilitate saldoa, halako moduz non isla dezan zein diren 2000ko ekitaldiko azken egunean entitate publikoei benetan ordaintzeke dauden zorrak.

“Nafarroako Gobernua. Osasun laguntza” eta “Ogasun publikoa. PFEZa dela eta hartzekodun” kontuen saldoak erregularizatzea.

BEZaren kudeaketari buruzko lege xedapenak aplikatzea.

“Ogasun publikoa. BEZa dela eta zordun” kontua birsailkatu eta duen saldoa balantzearen aktiboan agerrarazi.

VI.21. HIRIGINTZA

Iruñeko HAPO –1984koa da–, 1995ean hasi zen berrikusten. Berrikuspen hori osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batez 1999ko otsailean. Planari aurkeztutako alegazioak ari dira ebazten egun.

Hirigintza- eta kontabilitate-obligazioen betetzeari buruz, adierazi beharra dugu ez daudela formalki eratuta hirigintza hitzarmenen eta orubeen erregistroak, nahiz eta horiek ezartzeko lanean ari diren.

Aipatutako hirigintza- eta kontabilitate-obligazioak bete daitezen gomendatzen dugu.

VI.22. GORABEHERAK

Udaleko Idazkaritza Nagusiak igorritako informazioaren arabera, hemezortzi dira eduki ekonomikoa izan eta ebazpenaren esperoan dauden auzi judizialak; gutxi gorabehera 900 milioi egiten dute, eta ez dago aurreikusterik auzi horien emaitzak udalaren aldekoak edo kontrakoak izanen diren.

Bestalde, 2000ko abenduaren 31n, udalak bete beharreko zerga guztiak ikuskatzeko zabalik daude, eta, hortaz, behin betiko kitapena egiteko dago.

VI.23. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ENPRE-SAK ETA FUNDAZIOAK

Atal honetan, egindako lan osagarriekin batera, auditoretza txostenetako ondorio nagusiak bil-tzen dira.

VI.23.1. Erakunde autonomoak

Bi erakunde autonomo daude: Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak. Ondokoak dira 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruzko daturik nabarmenenak:

Gastu eta dirusarreraren betetzea (pezetak, milioitan)

GASTUAK	Aurrekontua	Aitortua	Ordainduta	Ordaintzeke	Egindak. %
Hirigintza Gerentzia	13.434,80	1.062,50	698,4	364,1	7,91
Haur Eskolak	713,60	649,20	615,9	33,3	90,98
DIRUSARRERAK	Aurrekontua	Aitortua	Dirusarrera	Sartzeke	Egindak. %
Hirigintza Gerentzia	13.434,80	854,9	797,4	57,5	6,36
Haur Eskolak	713,60	677,7	677,4	0,3	94,97

Gastu eta dirusarrerak bere izaeraren arabera (pezetak, milioitan)

GASTUAK	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Langileak	156,5	520,2
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	51,6	102,1
Korrituak	0	0
Transferentzia arruntak	3,5	0,7
Inbertsio errealak	761	26,2
Kapital transferentziak	89,9	0
Guztira	1.062,5	649,2
DIRUSARRERAK	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Tasak eta bestelako dirusarrerak	0,5	165,1
Transferentzia arruntak	181,8	485,6
Ondare dirusarrerak	147,8	0
Inbertsioen salmenta	0	0
Kapital transferentziak	524,8	27
Variac. Finantza-aktiboak	0	0
Guztira	854,9	677,7

Udalaren ekarpena (pezetak, milioitan)

Transferentziak	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Arruntak	163,77	465,57
Kapitalezkoak	0,84	27,00
Guztira	164,61	492,57

Hirigintza Gerentzia

Erakunde autonomo honen auditoretza txostenak adierazten duen iritzia arabera, erakundearen egoerek zuzen islatzen dute ondarea eta finantza egoera; txostenak egiaztatu du erakundeak, aurrekontu, kontratazio eta langile gaietan, legez kotasunaren printzipioa kontuan hartuta jardun duela 2000 urtean.

Txostenak, halere, kontuan hartu beharreko gorabehera bat jasotzen du. Nafarroako Gobernuak nahiz VINSAk ordaindutako urbanizazio kuantak, zituzten lurzatiak zirela eta ordaindu beharrekoak, behin betikoak izan ziren eta ez, aldiz, kontura ordaindutakoak, hau da behin behinekoak.

Auditoretza txostenarekin batera bada "Gomendioen karta", eta hauek iradokitzen ditu:

- Kudeatzaileak edo baimena duen norbaitek faktura guztiak ikusonets edo baimendu behar lituzke.

- "Mendebaldea C" poliginoaren likidazioa egin beharko litzateke.

- Fakturretan, zenbateko osoak agertu beharko luke, alde batera utzita horren kobrantza edo ordainketa konpentsazio bidez eginen dela.

- Kontseiluak hartutako erabakiak, eduki ekonomikoa badute, Kontabilitateari jakinarazi behar litzazkioke.

- Aldizka gerta daitezkeela aurreikusi daitezkeen gastu eta dirusarrerak kontabilizatzea kome-ni da.

- Datu base baten bidez, akta eta bertan jasotako egitateak lotu beharko lirateke, eta jarraipen bat egin.

Egun, Gerentzia eta udala saldoak erregularizatzen ari dira.

Gure gomendioa da auditoretza txostenak iradokitako gomendioak gauzatzea.

Gomendatzen dugu, aurreko txostenetan adierazi bezala, neurtzea zer den egokiago: Gerentzia erakunde autonomo izaten jarraitzea edo Udalean bertan sartzeko udal zerbitzu gisa. Bestalde, auditoretza txostenak iradokitakoak gauzatzea da gure gomendioa.

Iruñeko Udalaren haur eskolak

Auditoretza txostena aldekoa da, baina hurrengoak ditu salbuespen:

Entitateak, balantzean, inbertsioak bailiren sartu ditu hainbat ikastetxetan egindako obrak. Halere, ikastetxe horiek udal jabetzakoak dira, eta obrak, hortaz, ikastetxeok erakunde autonomoari atxiki arte, urte anitzeko gastutzat hartu beharko lirateke. Gainera, urte anitzeko gastu horiek gehenez ere 5 urteko epean amortizatu beharrak gastu handiagoa eraginen zuen 2000ko ekitaldian.

- 2000ko ekitaldiko finantza egoera ez da aurkeztu 272/1998 Foru Dekretuak ezarritako egitura eta edukiekin.

Auditoreek "Gomendioen karta" ere gehitu diote txostenari, kudeaketa hobetzeko tresna izan dadin. Aipatzen dituen iradokizunik aipagarrienak hauek dira:

- Eskuliburu bat egin beharko litzateke deskribatzeko haur eskolen antolamendu egitura, bai eta antolamendu unitateen arteko ondasun eta zerbitzuen fluxu nagusiak; eskuliburuak, halaber, kontabilitate-idazpenek balio dutela ziurtatzeko kontrol politikak definitu beharko lituzke.

- Orobat, eskuliburu bat egin beharko litzateke, non normalean aplikatzen diren kontabilitate prozedurak jasoko liratekeen; besteak beste, hauek: kontabilitate prozesuari buruzko jarraibideak, neurketen eta aldizkako kontrol gehigarrien printzipioak.

- Kontabilitate-, aurrekontu- eta finantza-informazioa 272/1988 Dekretura egokitzeaz gain, gomendioa da erabiltzea ANIMSAk Nafarroako toki entitate eta horien erakunde autonomoztat prestatutako aplikazio informatikoa.

- Idatziz jarri beharko lirateke espediente administratiboak abiarazteko irizpideak, eta horien edukia eta ordena erabakitzeke irizpideak ere bai.

Gure gomendioa da auditoretza txostenak iradokitako gomendioak betetzea.

VI.23.2. Enpresa publikoak

Iruñeko Udalak hiru enpresa publikotan parte hartzen du: Comiruña, Animsa eta Mercairuña. Hauexek dira, 2000ko ekitaldia ixtean, horiei buruzko xehetasun aipagarrienak:

Egoera-balantzearen laburpena (pezetak, milioitan)

	AKTIBOA			PASIBOA		
	Garbia, guztira	Zirkulatzaila	Finkoa	Zirkulatzaila	Epe luzera	Ondare-garbia
Comiruña	82	77	5	10	8	64
Animsa	533	221	312	223	194	117
Mercairuña	680	507	173	37	86	557

Egoera-balantzeari buruzko azterlana (pezetatan)

	Comiruña	Animsa	Mercairuña
Maniobra-fondoa (AC-PC)	66.981.549	-2.307.000	469.716.893
Cash Flow (Mozkin likidoa + amortizazioak)		50.504.000	48.917.721
Likidezia ratioa (AC/PC)	7,75	0,99	13,68
Zorpetzea, guztira (Galdagarria, guztira/Garbia)	0,28	3,57	0,22
Errentabilitatea (Etekina/Garbia x 100)	-2,82	7,11	6,2

Galeren eta irabazien kontuaren laburpena (pezetak, milioitan)

	Dirusarrera arruntak	Gastu arruntak	Eragiketa berezien emaitza	Emaitza	
				2000	1999
Comiruña	101	103	0,2	-2	-6
Animsa	586	601	23	8	20
Mercairuña	163	128	0	35	31

Hiru enpresa horiei buruzko auditoretzak garbiak dira oso, inolako salbuespen eta erreserbarik gabeak. Auditoretza-txostenak aipatzen du Mercairuña Sozietateak fruitu, barazki eta arrainen nabean izaniko sutea, ekitaldia itxi ondoren gertatu bazen ere.

VI.23.3. Fundazioak.

Udalak bi fundazio ditu 2000 urtea bukatzean: Erruki Etxea eta Gaiarre Fundazioa. Hauexek dira, 2000ko ekitaldia ixtean, horiei buruzko xehe-tasun aipagarrienak:

Egoera-balantzearen laburpena (pezetak, milioitan)

	AKTIBOA			PASIBOA		
	Garbia, guztira	Zirkulatzaila	Finkoa	Zirkulatzaila	Epe luzera	Ondare-garbia
Erruki Etxea	2.974	2.108	867	892	0	1.999
Gayarre Fundazioa		231	135	96	480	183

Egoera-balantzeari buruzko azterlana (pezetatan)

	Erruki Etxea	Gayarre Fundazioa
Maniobra-fondoa (AC-PC)	1.216.004.458	86.717.421
Cash Flow (Mozkin likidoa + amortizazioak)	76.949.929	8.548.376
Likidezia ratioa (AC/PC)	2,36	2,79
Zorpetzea, guztira (Galdagarria, guztira/Garbia)	0,44	0,26
Errentabilitatea (Etekina/Garbia x 100)	0,23	0,44

(*) Mozkina zergen aurretik

Galeren eta irabazien kontuaren laburpena (pezetatan)

	Dirusarrera arruntak	Gastu arruntak	Eragiketa berezien emaitza	Emaitza	
				2000	1999
Erruki Etxea	1.990.140.133	1.997.657.097	12.202.699	4.685.735	54.006.879
Gayarre Fundazioa	251.392.371	256.961.522	4.077.484	-808.944	9.345.764

Ez da auditoretzarik egin Gaiarre Fundazioaren –1998an sortua– egoera orriak direla-eta.

Bere horretan diraite fundazioei buruzko foru legeko hainbat xedapen bete ez izanari buruz 1998ko txostenean esandakoek. Hona:

- Ez da kuantifikatzen antzokiaren aprobetxamendu eskubidea, nahiz eta foru legeak espresuki esan dirurik gabeko ekarpenak kuantifikatu egingen direla eta aplikatutako balioespen-irizpideak adieraziko direla.

- Fundazioari eratze-egintzan atxikitako ondarea ez da aski haren helburuak betetzeko –foru legeak hala agindu arren–, zeren, eskritura publiko bihurtutako ekonomi txostenean ikusten den legez, 18 milioiko ekarpena 2 hilabeteko finantza-beharrizanei baitagokie soil-soilik. Egindako jarduerak sortutako aurrekontu-defizita estaltzeko balio izan dute batez ere gero dirulaguntza bidez egindako ekarpenek.

- Fundazio bat da, definizioz, fundatzailearen borondatez legezko intereseko helburu iraunkor bati atxikitako ondarea; horrenbestez, aztertu dugunaren moduko entitate bat ez zaio estu-estu lotzen fundazioen egungo araubideari; izan ere, haren ondarea, iraungiz gero, edozein unetan itzul baitakioke fundatzaileari, hark hala nahi baldin badu.

Erruki Etxeari buruzko auditoretza txostenak aldeko iritzia agertzen du, baina zalantza sortzen du 1994ko ekitaldira arte sozietateen gaineko zerga aplikatu izanak.

1999ko ekitalditik aitzina, irabazi asmorik gabeko entitateen plan berezira egokitu du kontabilitatea.

Arestikoak ikusita, hona gure gomendioak:

- *Udalaren menpeko entitate guztiek egin behar dute urtero kanpo auditoretza. Azterketa prozesu horretan, kanpoko txosten horrek espresuki azaldu beharko du kontratazio eta aurrekontu arloko legezketasun printzipioaren betetze maila.*

- *Kontabilitateko plan orokorraren egokitzapen berariazkoa aplikatu behar du Gaiarre Fundazioak.*

- *“Gaiarre Antzokia Fundazioa” lege aldetik fundazio izaten jarraitzeko egokitasuna aztertzea; aztertu egin beharko litzateke, esate baterako, erakunde autonomo edo udal zerbitzu dezentralizatu bihurtzeko aukera.*

Francisco Javier Sesma Masa auditoreak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA

**FINANTZA-EGOERA 2000KO ABENDUA-
REN 31N**

Gehigarria honako atalotan banatu dugu:

a) 2000ko aurrekontu bateratuan nabarmendu beharreko alderdiak.

b) Ratio eta magnitude nabarmenenak.

c) Zorpetzearen egoera.

A) 2000KO AURREKONTU BATERATUAN
NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK.

Udalaren eta erakunde autonomoen 2000ko aurrekontu bateratuaren betetzea ondoko taulan azaltzen da:

IRUÑEKO UDALA - 2000 EKITALDIKO BETETZE BATERATUA

	Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	%
ORGANIKOA: NORK GASTATZEN DUEN			
Administrazio orokorra	127.311	21.182.719	93
Erakunde autonomo administratiboak	10.287	1.711.672	7
GUZTIRA	137.598	22.894.391	100
EKONOMIKOA: A.- NOLA GASTATZEN DEN			
I. Langileen gastuak	57.039	9.490.422	41
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	37.115	6.175.470	27
III. Finantza-gastuak	1.578	262.561	1
IV. Transferentzia arruntak	5.589	929.941	4
VI. Inbertsio errealak	31.993	5.323.240	23
VII. Kapital transferentziak	1.740	289.442	1
VIII. Finantza-aktiboak	1.174	195.405	1
IX. Finantza-pasiboak	1.370	227.910	1
GUZTIRA	137.598	22.894.391	100
EKONOMIKOA: B.- ZERTAN GASTATZEN DEN			
I. Funtzionamendu gastuak	94.154	15.665.892	68
II. Finantza-zama	2.948	490.470	2
III. Transferentziak	7.329	1.219.384	5
IV. Inbertsio gastuak	33.168	5.518.645	24
GUZTIRA	137.598	22.894.391	100
EKONOMIKOA: C.- GASTUAK NOLA FINANTZIATZEN DIREN			
I. Tributu bidezko dirusarrerak	60.035	9.988.916	44
II. Transferentziak	64.302	10.698.986	47
III. Ondare dirusarrerak	8.204	1.364.986	6
IV. Finantza eragiketak	2.294	381.679	2
V. Soberakina	2.764	459.824	2
GUZTIRA	137.598	22.894.391	100
FUNTZIONALA: ZERTARAKO GASTATZEN DEN			
Etxebizitza eta hirigintza	38.266	6.366.861	28
Segurtasuna eta babes soziala	22.909	3.811.795	17
Segurtasuna eta babes zibila	15.063	2.506.264	11
Hezkuntza	13.718	2.282.456	10
Kultura	11.230	1.868.567	8
Administrazio Orokorra	11.718	1.949.639	9
Zor Publikoa	2.943	489.661	2
Komunitatearen ongizatea	7.561	1.258.048	5
Gizarte sustapena	5.988	996.361	4
Ekonomia arauketa	3.827	636.829	3
Osasuna	2.635	438.437	2
Bestelakoak	1.740	289.474	1
GUZTIRA	137.598	22.894.391	100

Azterketa horretatik, hauxe nabarmentzen dugu:

- Gastua, guztira, 22.894 milioikoa da –138 milioi euro–; ehuneko 93 udalari dagokio, eta gaintzekoa erakunde autonomoei.

- Kapitulu ekonomikoari erreparatuta, langileen gastuek –ehuneko 41–, ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak –ehuneko 27– eta inbertsioek –ehuneko 23– udalaren gastuaren ehuneko 91 egiten dute.

- Finantza-zamak sortutako gastuek –korrituak eta amortizazioa– aurrekontuaren ehuneko 2 egiten dute.

- Gastu-funtzioari dagokionez, Etxebizitza eta Hirigintzak, Gizarte Babesak eta Hiritarren Babespenak gastuaren ehuneko 56 justifikatzen dute gutxi gorabehera. Hezkuntza eta Kulturak, aldiz, ehuneko 18.

- Gastu horien finantziazio iturriak honakoak dira: transferentziak, –ehuneko 47–, batez ere Nafarroako Gobernuarenak, eta tributu bidezko dirusarrerak –ehuneko 44.

- Udalaren aurrekontuaren betetzeari soilik erreparatuta –ikus V. atala:

- Hasierako aurrekontua ehuneko 16 –3.741 milioi– igo da aldaketak direla medio, batez ere aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak sartu direlako –guztira 2.784 milioi. Aldaketa horiek 1999ko diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatu ziren batez ere.

- Gastuen betetze maila ehuneko 80koa da. Langileen gastuak behin betiko aurreikuspenekoa baino handiagoak izan dira, eta inbertsioen betetzeak ehuneko 52 besterik ez du egiten; horrenbestez, egiteke dauden inbertsioak hurrengo ekitaldira eramanen dira: 2.340 milioi.

- Dirusarreretan, betetze maila ehuneko 89koa da. Aipagarriak dira, batetik, tributu bidezko diruserrak –ehuneko 119– (besteak beste, Ezkabako sektorearen desjabetze-sistema liberatzeak eragindako itzulketa zela eta, aitortutako dirusarrerak 782 milioi egin dutelako) eta ondare bidezko dirusarrerak –ehuneko 210–; izan ere, dirusarrera horiek maila ona dute. Aldiz, inbertsio errealeen salmentaren betetzeak aurreikusitakoaren ehuneko 39ra besterik ez da heldu. 9. kapituluaren betetzeak –Finantza-aktiboen aldaketa– ehuneko 6ko

betetzea izan du, udala VINSaren ordeaz jarri baita 185 milioiko mailegu batean, Sanduzelaiko eraikin bat erosteko; ez da, ordea, inongo mailegurik kontratatu 2000ko ekitaldian eginiko inbertsioak finantzatzeko (aurreikusitako maileguek 3.270 milioi egiten zuten).

- Ordainketen betetze maila ehuneko 86koa da, eta kobrantzena ehuneko 90ekoa, oso altua alegia; udal tributuen kobrantzak ehuneko 84 egiten du.

Erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzea dela-eta, hauxe nabarmentzen dugu:

- Hirigintza Gerentziaren aurrekontuak, 1999koarekin alderatuta, ehuneko 316 egin du gora; 2.814 milioi izatetik, 2000 urtean 11.175 milioi izatera pasa da.

Aurrekontuan izaniko aurrekontu-aldaketak 1.720 milioi egin dute, hasierako aurrekontuaren ehuneko 15; aldaketak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nabarmen egin dute behera –2.896 milioi egin zuten–. Aldaketok, bereziki, inbertsio errealetan eman dira.

Gastuaren betetze maila behin betiko kredituaren ehuneko 8 besterik ez da, inbertsioen kapituluak izaniko betetzearen ehuneko txikia izan baita –ehuneko 6–; izan ere, zenbait plan onestean izaniko atzerapenek hori eragin dute –Buztintxuri, P-9A eta Sanduzelaiko D unitatea–, eta kapital trasferentziek ere bai –ehuneko 11–, zerkusia baitute onetsi gabeko hirigintza planen onspenarekin.

Hirigintza Gerentziaren dirusarreraren aurrekontuak izaniko betetzea ehuneko 7koa izan da. Betetze horren apalak zerkusia du, kudeaketa txostenean adierazten denez, onetsi gabeko hirigintza planetan aurreikusitako inbertsioak ez egitearekin; hori horrela, ez da hirigintza kuotarik igortzerik izan, eta 9.435 milioi eginen zuten.

Udalaren haur eskolei dagokienez, dirusarreraren aurrekontuak izaniko betetze maila ehuneko 95ekoa da, eta 91koa gastuen aurrekontuak izanikoa.

B) RATIO ETA MAGNITUDE NABARMENENAK.

Ondoko taulan azaltzen dira aurrekontu-betetze bateratutik ateratzen diren ratio nabarmenenak.

IRUÑEKO UDALA - Datu bateratuak

Adierazle nagusiak	2000	1999	2000/1999 % aldaketa
Biztanle kopurua	184.145	184.145	0
Aurrekontuko superabit/defizita (pezetak, milioitan)	-449	-429	5
Dirusarrerak, biztanle bakoitzeko (pezetak)	121.831	110.946	10
Gastuak, biztanleko (pezetak)	124.328	113.278	10
Finantza-zama, biztanleko (pezetak)	2.663	7.360	-64
Tributu bidezko dirusarrerak, per capita (pezetak)	54.245	48.535	12
Gastu arrunta, per capita (pezetak)	91.550	83.061	10
Zorpetze maila (ehunekoa)	2	7	-67
Zorpetze muga (ehunekoa)	18	20	-8
Aurrezki garbia (ehunekoa)	16	12	26
Langileen indizea (ehunekoa)	41	41	0
Inbertsio indizea (ehunekoa)	25	20	21
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	48	51	-6
Zorpetze ahalmena (ehunekoa)	16	12	26
Epe luzeko zorra / Dirusarrera arruntak (ehunekoa)	34	38	-11

Haren azterketatik, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- 2000ko ekitaldian, aurrekontuko emaitza negatiboa gertatu da, 449 milioi pezetakoa hain zuzen; horietatik 281 udalari dagozkio, 207 Gerentziari, eta haur eskolek 28 milioiko suberabita izan dute. 2000ko ekitaldiko kapital gastuen finantzaketa beharra izan da emaitza negatibo horren arrazoia; finantzaketa hori, neurri batean, 1999ko ekitaldian izaniko diruzaintzako gerakinarekin finantzatu dira.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 10 egin dute gora, gastuak igo diren ehuneko bera.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zamak ehuneko 64 egin du behera; izan ere, 1999ko ekitaldian, maileguen amortizazio aurreratuak 1.009 milioi egin zuen. Horren ondorioz, zorpetze-maila, ehuneko 5 jaitsi da: ehuneko 7tik ehuneko 2 izatera pasa da. Hala ere, funtzionamendu gastuen areagotzea dirusarrera arruntena baina handiagoa izan denez, zorpetzearen mugak 2 puntu egin du behera, eta 2000ko ekitaldian ehuneko 18koa izan da.

- Azken emaitza hau da: udalaren zorpetze ahalmena 4 puntu handitu da.

- Dirusarrera arrunten gaineko epe luzeko zorra, 1999 urtean eginiko amortizazio aurreratua- ren ondorioz, ehuneko 38 izatetik –1999ko ekitaldia– ehuneko 34 izatera pasa da –2000ko ekitaldia.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 12 hazi dira, eta gastu arruntak, aldiz, ehuneko 10.

- Langileen gastuek, 1999ko ekitaldiarekin alderatuta, berdin jarraitzen dute, eta gastu guztien ehuneko 41 egiten dute. Aldiz, udalaren eta haren erakunde autonomoen inbertsio indizeak gastu guztien ehuneko 25 dira, aurreko ekitaldian baino 5 puntu gehiago.

- Dirusarrerak guztira hartuta, dirulaguntzekiko menpekotasuna ehuneko 48koa da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 3 gutxiago; hau da, dirusarreretak 100 pezeta bakoitzetik 48 transferentzia eta dirusarreretatik datoz.

Ondoko taulan azaltzen dira udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen magnitude nagusiak:

Magnitueda/Entitatea	(pezetak, milioitan)		
	Udala	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Diruzaintzako gerakina	4.004	3.446	100
Aurrekontuko emaitza	-270	-207 (1)	28
Ekonomia-emaitza	3.675	75	36

(1) Aurrekontuko emaitza ez dago finantzaketa desbideraketekin doluta"

Udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinak 7.550 milioi egiten du; horietatik 4.652 milioi inbertsioen finantzaketari daude atxikiak, eta gainerakoak gastu orokorretarako dagoen diruzaintza gerakinekoak dira, hau da, hurrengo ekitaldian gastu aldaketak finantzatzeko baliabide bat.

Hirigintza Gerentziari atxikiriko gerakinari dagokionez -3.390 milioi-, hor sartzten dira finantza-aktiboek eragindako interesak -809 milioi-. Bestalde, hirigintza poligonoen behin betiko likidaziorik ez egin izanak ziurgabetasuna eragin du Gerentziako diruzaintza gerakinari dagokionez; ez dago jakiterik likidazio horiek sorraraziko dituzten gorabeherak zer eragin ekonomiko izanen dituzten udal funtsetan.

- Udala solik aztertuz gero, azken 5 urteotan diruzaintzako gerakinak izan duen bilakaera ikus dezakegu ondoren:

(pezetak, milioitan)	
Diruzaintzako gerakina	Zenbatekoa
1995	-2.081
1996	-1.533
1997	1.246
1998	4.821
1999	4.235
2000	4.004

Ikus daitekeenez, magnitude horrek bilakaera oso ona izan du azken urteotan, defizit handia izatetik aldeko saldo zabala izatera pasa baita.

Udalak 2000ko ekitaldian izaniko diruzaintza gerakina, halere, aurreko urtean izanikoa baino 231 milioi txikiagoa izan da. 2000ko ekitaldiko kontuen oroit-idazkian adierazten denez, gutxitze horren arrazoiak hauek dira: kobratzen zailak diren eskubideek gora egin dute, horiek ezartzeko sistema berria aplikatzearen ondorioz; gastuaren betetzeak gora egin du, eta, aldiz, ez dute horrenbeste egin gora, batuta, kobratzeke dauden eskubideek eta diruzaintzako funts likidoek.

C) ZORPETZEA

Balantzearen informazioaren arabera, ondoko taulan udalaren 1995etik 2000ra bitarteko zor guztia, epe luze zein laburrekoa, azaltzen da, milioitan. Orobat azaltzen dira zorpetzearekin zerikusia duten hainbat adierazle esanguratsu:

Zorra	1995	1996	1997	1998	1999	2000
Epe luzekoa	3.459	5.077	7.398	8.214	7.079	6.851
Epe laburrekoa	4.832	6.477	3.552	4.091	3.665	4.708
Zorra, guztira	8.291	11.554	10.950	12.305	10.744	11.559
Zorpetze maila	% 9	% 7	% 5	% 5	% 7	% 2
Zorpetze muga	% 8	% 6	% 11	% 19	% 19	% 18
Zorra/dirusarrera arruntak	% 68	% 87	% 74	% 73	% 58	% 58

- Epe luzeko zorra, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 228 milioi jaitsi da; hori 2000ko ekitaldian eginiko amortizazioen ondorioz gertatu da.

- Epe laburrerako zorrak 1.043 milioi egin du gora, eta, orain, 4.078 milioi da. Faktura edo ordainagiria aurkeztu eta zorrak 60 eguneko epean ordaintzen dira, alde batera utzita aldizka izaten diren ordainketak edota ordainketa puntualak.

- Zorpetze mailak, 2000ko ekitaldian, bost puntu egin du behera -ehuneko 7 izatetik, ehuneko 2 izatera pasa da-, aurreko ekitaldian 1.009 milioiko amortizazio aurreratua egitearen ondorioz.

Halere, zorpetze mailak dirusarrera arruntan ehuneko 18 egiten du, aurreko ekitaldian baino puntu bat gutxiago; horren arrazoa hau izan da: funtzionamendu gastuek, 2000ko ekitaldian, diru-

sarrera arruntek baino neurri handiagoan egin dute gora.


Udalak, horren ondorioz, zorpetze ahalmena du, eta mailegu berrien ondoriozko finantza-zamari aurre egiteko erabil dezake dirusarrera arrunten ehuneko 16.

Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, udalak finantza egoera ona du epe laburrera (baliabide nahikoa du epe laburreko zorrak ordaintzeko), eta zorpetze ahalmena du epe luzera. 2001eko ekital-

dian 2 maileguren ezaldia amaitzen da, eta, horren ondorioz, finantza-zamak 99 milioi eginen du gora.

2000ko ekitaldian zehar, bete da Bideragarritasun finantzarioari buruzko Plana: dirusarrera arruntak nahikoa izan dira finantza-zama eta funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta 2000ko ekitaldirako aurrekontuan aurreikusitakoa baino nabarmen handiagoa izan da dirusarrera arruntek eraginiko soberakina (470 milioi aurreikusi ziren eta 3.025 izan dira).

I. Eranskina. Iruñeko Udalaren organigrama (2000)



II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Dirusarrerren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Dirusarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	